



Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira


ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxe: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282

•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.net


CAMSCANNER: Mugikorretan edo Tabletan

Ikasleen lanak eskaneatzeko eta drivera igon ahal izateko (edozein eratarik partekatuzeko), CamScanner aplikazioa zelan erabiltzen den azalduko dugu.

1. Aplikazio guztiak agertzen diren menua zabaldu behar dugu. Bertan “play store” aplikazioa zabaldu eta bilatzailean “CamScanner” idatzi. Ondoren “instalar” sakatu behar dugu.



2. Instalatu eta gero, aplikazioa zabaltzen dugunean galeriara sartzeko baimena eskatuko digu eta hau onartu behar dugu. Ondoren, ongi etorriko mezu bat agertuko zaigu eta aplikazioaren ezaugarri nagusiak azalduko dizkigu. Azkenengo leihoan erregistratzeko eskatuko digu: KONTUZ! Erregistrorik ez da behar, “usar ya” botoian sakatuko dugu eta aplikazioa abiatu egingo da.



Optimización de imagen

Recorte y mejora inteligentes para que sus textos e imágenes se vean claros y nítidos.



Escanee y gestione documentos





Seber Altube Ikastola


Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxe: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282






•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.net

3. Aplikazioa erabiltzen hasi aurretik bisita gidatu bat egiteko aukera daukagu. Horretarako "Iniciar demo" botoian klik egin eta bisita gidatua hasi egingo da. CamScanner aplikazioa nola erabiltzen den irakatsiko dugu.

Aplikazioa zuzenean erabiltzera pasatu nahi badugu, behean agertzen den gurutzean klikatu beharko dugu.



4. Aurreko pausoak jarraituz aplikazioa erabiltzeko prest izango dugu. Eskaneatzen hasteko, kamera itxurako botoian klikatu beharko dugu. Ondoren, mugikorra hartu eta eskaneatu nahi dugun dokumentua (fitxak, marrazkiak, argazkiak...) pantailan ikusi beharko ditugu eta prest dugunean berriz kamera itxurako botoia sakatu. Ondoren pantailan dokumentua inguratuta agertuko zaigu karratu batekin. Karratu hori manipulatu, argazkia moztu daiteke eta bakarrik utzi interesatzen zaigun zatia (dokumentua). Dena prest daukagunean "paso siguiente" botoian klikatu.






Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxe: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282

•E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.net

5. Hurrengo pausoa dokumentua pantailan agertuko zaigu eta hobesteko aukerak agertuko dira. Adibidez, disdira edo kontrastea manipulatzeko. Aldaketa hauek, eskuz egin daitezke edo aplikazioak erakusten dituenekin. Goiko aldean dokumentuari izena aldatu ahal izango diogu. Prest dugunean “guardar” botoia sakatuko dugu.



6. Eskaneatutako dokumentuak galeria baten agertuko dira. Hauetariko bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditugu eta goian agertzen den partekatzeko botoiarekin, partekatzeko aukerak agertuko zaizkigu. Lehenengo formatua eta gero zein bidetatik partekatu nahi dugun aukeratu beharko dugu.

